

## OREKA 2022ko dFERIArako

2022ko edizio honetako gaia **OREKA** izango da. Bi indar edo gehiagoren arteko oreka. Harmonia-egoera espazio fisiko batean, edo baita pertsona baten barruan ere. Kudeaketa eraginkorra ekonomian, botere-oreka politikan, buru-osasuna edo oreka emozionala... Harmonia baliotsu bezain kaltebera; izan ere, hausten denean dena murgiltzen baitu kaosean.

dFERIA 2022ko kartel eta irudiak gai horri erantzuten dio, eta **Reskate** arte-kolektiboak sortua da, hots, María López eta Javier de Ribak osatutako taldeak. Honela deskribatzen dute eurek: “Irudi bat, **osagai guztiak harmonian dituen**a. Konposizio simetrikoagatik ez ezik, baita aurpegi neutroa ageri duelako ere, seriotasunaren eta irribarrearen artean: emozio jakin bat adierazi aurreko oreka-une horretan. Gainera, errezelak, ilunean argituriko aurpegi horren ilea balitz bezala, arte eszenikoak agertzen dizkigu”.

Hartara, galdera hauek pausatuko ditugu dFERIA 2022n: Zer da oreka eta zer garrantzi du? Garrantzitsua al da egonkortasuna lantzea? Zenbateraino dira erabakigarriak oreka-nahasteak?

### dFERIArean parte hartzeko interesa nazioartean

Aurtengo ediziorako, 352 konpainiak eman dute izena. Gehienak Espainiako estatukoak dira, baina jaso ditugu nazioarteko beste proposamen batzuk ere, hala nola Mexiko, Argentina, Zipre, Alemania edo Kolonbiatik, besteak beste. Azkenik, 26 konpainiak erakutsiko dituzte beren proposamenak Arte Eszenikoen merkatu honetan; aurkeztutako produkzioen % 7k. Esan dezakegu bost estreinaldi erabateko izango direla eta, oro har, % 50etik gora bestelako estreinaldiak izango dira (estatuan, Euskadin...).

Feria formatuari eutsiko zaio, oso emaitza onak izan baititu azken urteotan. Antzerki-emanaldiak nabarmenduko dira batez ere. Ohi bezala, gonbita egingo zaie ikus-entzuleei une honetako uzta eszenikorik hautenaz gozatzeko. Topaketa profesionalak eta arte-merkatua ere nabarmenduko dira, etortzen direnek horretarako guneak izango baitituzte. Gainera, bi saio egingo dira negozio-foro eran, helburu berberarekin.

Urtarrilaren amaiera aldera jakinaraziko dugu dFERIA 2022ren programazioaren gehiena. Martxoaren 14tik 17ra egingo da, Donostiako espazio eszeniko nagusietan.